

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2374

845/2024 EBAZPENA, apirilaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1309/2021 Ebazpenaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria kategoria / lanpostu funtzionalerako (azaroaren 8 EHAA 221. zk.), eta hain zuzen, prozesu hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera arautuko da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 16ko 571/2023 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 31ko EHAA 102. zk.), zeina aldatu egin baitzen abuztuaren 9ko 1085/2023 Ebazpenaren bidez (irailaren 7ko EHAA, 171. zk.), lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko eskaintza argitara eman zen Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria kategoria / lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren otsailaren 19ko 103/2024 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, ebazpen honen I. eranskinaren bidez, Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan onartutako langileen behin betiko zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 16ko 571/2023 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Onartzea, ebazpen honekin batera doan II. eranskinaren bidez, Goi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Ekonomiako Goi Mailako Teknikaria kategoriako / lanpostu funtzionaleko destinoak betetzeko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2023ko martxoko zikloan baztertutako langileen behin betiko zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita. . Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 16ko 571/2023 Ebazpenean daude jasota.

Hirugarrena.–Ebazpenhonen III. eranskinaren bidez argitara emateko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 16ko 571/2023 Ebazpenaren eranskinean eskainitako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Laugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Bosgarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaiek, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Langileek, emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen badira, hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan esleipenduna zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago Osakidetzan, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori konputatzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipenduna ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetuko da EHAA-n destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, baldin eta behin-behineko atxikipenean badago, edo, bestela, kargua-utzi eta hurrengo egunean, baldin eta zerbitzu-eginkizunetan eta aldi baterako barne-sustapenean badago.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8. oinarrian xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko maiatzaren 20a, astelehena

I. ERANSKINA

571/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

ONARTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA – EKONOMIAKO GOI-TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA – EKONOMIAKO GOI-TEKNIKARIA

Ordena	NAN	Izen-abizenak	Guztira
1	***1343**	Ortega Ortega, Carolina Maria	68,3430
2	***9637**	Bengoia Alonso, Iratxe	55,6650
3	***4718**	Alonso Perez, Laura	52,3050
4	***5820**	Leyaristi Areta, Maria Amaya	30,3910

II. ERANSKINA

571/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA

ONARTUEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA – EKONOMIAKO GOI-TEKNIKARIA

LANPOSTU FUNTZIONALA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA – EKONOMIAKO GOI-TEKNIKARIA

NAN	Izen-Abizenak	Baztertzeko arrazoa
Ez dago bazterturik		

2024ko maiatzaren 20a, astelehena

III. ERANSKINA
571/2023 EBAZPENAREN ZIKLOA
LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA
KATEGORIA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA - EKONOMIAKO GOI-TEKNIKARIA
LANPOSTU FUNTZIONALA: EKONOMIAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako Erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***1343**	Ortega Ortega, Carolina Maria	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Galdakao-Usansoloko Ospitalea-Galdakao / Ekonomiako Zuzendaritza-Ekonomiako Zuzendaritza-Kontabilitatea-Kontabilitate analitiko / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikogehiago	3	2016-12-13
***9637**	Bengoa Alonso, Iratxe	Zuzendaritza Nagusia	Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Zuzendaritza Nagusia - Araba-Vitoria-Gasteiz / Ekonomia eta Finantzako Zuzendaritza-Finantza eta Aurrekontu Zuzendariordetza-Aurrekon Kudeak eta Kontabilit. Analitiko / Lanaldi Zatiua-Lanaldi zaittu ohikoa-Ez espezifikogehiago	3	
***4718**	Alonso Perez, Laura	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Ekonomiako Zuzendaritza-Ekonomiako Zuzendaritza-Ekonomiako Zuzendaritza / Goizez-Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikogehiago	3	2022-11-20